| 7. ERANSKINA: INGURUMENA SAILA | ANEXO 7: ÁREA DE MEDIO AMBIENTE |
|---|---|

| **7.2. DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK, EGUZKI ENERGIA KAPTATZEKO SISTEMAK JARTZEKO** | **7.2. BASES REGULADORAS DE LA CONCESION DE SUBVENCIONES PARA LA INSTALACIÓN DE SISTEMAS DE CAPTACIÓN DE ENERGÍA SOLAR** |
|---|---|
| **1. Zioak azaltzea** | **1. Exposición de motivos** |
| Energia kudeaketaren eremua da ingurumen eta iraunkortasun arazoei estuen lotuta dagoen gaietako bat, batez ere, erregai fosilekiko mendekotasun handiarengatik, atmosferara isurtzen direnengatik eta hondakin toxikoak sortzeagatik. | El ámbito de la gestión energética es una de las cuestiones más estrechamente relacionadas con la problemática ambiental y la sostenibilidad, principalmente por la dependencia creciente de los combustibles fósiles, las emisiones atmosféricas y la generación de residuos de carácter tóxico. |
| Arrasateko Udalak, jakin dakiela zein errealitate bizi dugun eta kontuan hartu beharrekoa dela plangintza estrategikoen udal prozesuetan, eta horregatik, Agenda 21aren eta “Arrasate Iraunkorra” hausnarketa prozesuaren lehentasunezko helburuen artean sartu du energia berriztagarriak sustatzea. | El Ayuntamiento de Arrasate, consciente de esta realidad y de la necesidad de tenerla en cuenta en los procesos municipales de planificación estratégica, ha incluido entre los objetivos prioritarios de la Agenda 21 y del proceso de reflexión “Arrasate Iraunkorra” el fomento de las energías renovables. |
| Halaber, “Arrasateko udalerrian eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzea arautzeko Udal Ordenantza” onartu zuen Arrasateko Udalak, Udalbatzarrak onartua 2008/04/3an. Ordenantza horren bidez, hirigintza ikuspegitik eguzki energia kaptatzeko sistema horiek jartzea arautu nahi du Udalak, batetik, ezartzen ditu udal lizentzia lortzeko jarraitu behar diren prozedurak, instalazio bakoitzaren ezaugarrien arabera, eta, bestetik, batzen ditu instalazioak jartzea eta paisaia eragina zaintzea edo gutxitzea. | Asimismo, el Ayuntamiento de Arrasate aprobó la “Ordenanza Municipal reguladora de la instalación de sistemas de captación de energía solar en el municipio de Arrasate”, aprobado por el Ayuntamiento Pleno en fecha 03/04/2008. Con esta Ordenanza se pretende regular desde el punto de vista urbanístico la instalación de los referidos sistemas de captación de energía solar, estableciendo, por un lado, los procedimientos que se seguirán para la obtención de la licencia municipal de conformidad a las características de cada instalación, y conjugando, por el otro, la colocación de las instalaciones con la preservación o minimización del impacto paisajístico. |

| | |
|---|---|
| Arrasatek baldintza klimatologikoak ditu eguzki energia ustiatzeko; horrek, teknologiaren garapen mailarekin batera, orain erabiltzen dena baino gehiago erabilzea dakar. | Arrasate posee condiciones climatológicas favorables para el aprovechamiento de la energía solar, lo cual, junto con el grado de desarrollo de la tecnología hacen posible un grado de utilización mayor que el que existe actualmente. |
| Horregatik guztiagatik, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, **eta are zehatzago eguzki energiarena**, laguntza bide hau ezarri du Udalak. | Por todo ello, y con objeto de fomentar el uso de las energías renovables, **y más concretamente de la solar**, se establece la presente línea de ayudas. |
| **2. Xedea eta Helburua** | **2. Objetivo y finalidad** |
| Deialdi honen helburua da Arrasateko udalerrian eguzki energia termikoa eta fotoboltaikoko sistemak jarri daitezen sustatzea, eta instalazio horiek errespetatuko dituzte "Arrasateko udalerrian eguzki energia kaptatzeko sistemak arautzeko Udal Ordenantza"n, Udalbatzarrak 2008/04/3an onartua, eta gainerako aplikazio arauetan ezarritako erabakiak". | Es objeto de la presente convocatoria favorecer la instalación de sistemas de energía solar térmica y fotovoltaica en el municipio de Arrasate, instalaciones que respetarán las determinaciones establecidas en la "Ordenanza Municipal reguladora de la instalación de sistemas de captación de energía solar en el municipio de Arrasate, aprobado por el Ayuntamiento Pleno en fecha 03/04/2008, y demás normativa de aplicación". |
| **3. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak** | **3. Actuaciones subvencionables** |
| Diruz lagundu daitezkeen jarduerak dira Arrasateko udalerrian eguzki energia termikoa eta fotoboltaikoa kaptatzeko sistemak jartzea. | Son actuaciones subvencionables la instalación de sistemas de captación de energía solar térmica y fotovoltaica en el término municipal de Arrasate. |
| Diru-laguntza horietatik kanpo geratzen dira eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzea derrigorrezkoa denean eraikinean, Eraikuntzaren Kode Teknikoa, eraikinetan Instalazio Termikoko Erregelamendua eta/edo energia kaptatzeko sistemak jarri eta/edo hartzeko derrigortasuna erabakitzen duten arau osagarriak onartu zirenez geroztik. | Quedan excluidas de la presente línea de subvenciones todas aquellas edificaciones en las que la instalación de sistemas de captación de energía solar sea obligatoria a partir de la aprobación del Código Técnico de la Edificación, del Reglamento de Instalaciones Térmicas en edificios y/o normativa complementaria que determine la obligatoriedad de instalar y/o adoptar sistemas de captación o eficiencia energética. |

| **4. Onuradunak eta eskatutako baldintzak** | **4. Personas beneficiarias y requisitos exigidos** |
|---|---|
| Deialdi honetan ezarritako laguntzen onuradunak izan daitezke Arrasateko udalerrian dauden lursail edo eraikuntzetako jabeak diren pertsona fisikoak eta bizilagunen komunitateak, eguzki energia kaptatzeko sistemak jarri dituztenak, betiere araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, 2008ko urtarrilaren 1etik eta deialdi honetako laguntzak aurkezteko epea bukatu den egunera arte. | Podrán ser beneficiarias de las ayudas establecidas en la presente convocatoria las personas físicas y las Comunidades de Vecinos, que sean propietarias de terrenos o edificaciones situadas en el término municipal de Arrasate, que hayan instalado sistemas de captación de energía solar que cumplan los requisitos establecidos en la presente normativa entre el 1 de enero de 2008 y hasta el día de finalización del plazo de presentación de ayudas de la presente convocatoria. |
| Udalak diruz lagundutako jarduera guztiek bete behar dituzte Arrasateko udalerrian eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzea arautzeko Udal Ordenantzan eta gainerako aplikazio arauetan ezarritako xedapenak. | Todas las actuaciones subvencionadas por el Ayuntamiento deberán cumplir cuantas disposiciones establecidas en la Ordenanza Municipal reguladora de la instalación de sistemas de captación de energía solar en el municipio de Arrasate y demás normativa de aplicación. |
| **5. Diruz lagundu daitekeen kostua, laguntzen zenbateko eta gehieneko muga, laguntzak pilatuz gero** | **5. Coste subvencionable, cuantía de las ayudas y límite máximo en caso de concurrencia de ayudas** |
| Diruz lagundu daitezkeen kostutzat joko dira obra proiektuak eta eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzen erabilitako materialak, bai eta sistema horiek jartzeko behar den obra ere. Hortik kanpo geratzen dira finantza gastuak, tasak, zergak, baimenak eta antzeko izaerako beste kudeaketa gastu batzuk. | Se entenderán como costes subvencionables los proyectos de obra y los materiales empleados en la instalación de sistemas de captación de energía solar, así como la obra estrictamente necesaria para la instalación de los citados sistemas. Quedan excluidos los gastos financieros, tasas, impuestos, permisos y otros gastos de gestión de similar naturaleza. |
| Laguntza izango da itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat, diruz lagundu daitekeen kostuaren %20 arteko zenbatekoan, BEZa sartu barik. La cuantía máxima a financiar será de 10.000 € por instalación. | La ayuda consistirá en una subvención a fondo perdido por un importe de hasta el 20% del coste subvencionable, IVA no incluido. La cuantía máxima a financiar será de 10.000 € por instalación. |
| Laguntza horiek bateragarriak izango dira erakundeen beste laguntza batzuekin, betiere emandako laguntza guztiak ez badira portzentaje hauek baino handiagoak: | Estas ayudas serán compatibles con cualesquiera otras líneas de ayuda institucionales, siempre y cuando el total de las ayudas concedidas no supere los siguientes porcentajes: |

| | |
|---|---|
| Eguzki energia fotoboltaikoko instalazioetarako, diruz lagundu daitekeen kostuaren %51. | Para instalaciones de energía solar fotovoltaica, el 51% del coste subvencionable. |
| Eguzki energia termikoko instalazioetarako, diruz lagundu daitekeen kostuaren %100. | Para instalaciones de energía solar térmica, el 100% del coste subvencionable. |
| **6. Aurrekontua** | **6. Presupuesto** |
| Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 30.000 €koa da eta finantzatuko da 1.0700.780.444.00.00-Energia aurrezteko instalazioetarako diru-laguntzak kontu- sailaren kontura. | El importe económico asignado para las subvenciones objeto del presente programa asciende a la cantidad de 30.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0700.780.444.00.00-Subvenciones para instalaciones de ahorro energético”. |
| Aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuan betetzeko arauek aurreikusten dutenaren arabera. | Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal. |
| Halaber, diruz lagundu badaitezke ere, dagoen diru-kopuruaren mugarengatik lagundu ez diren eskaerek laguntza izan dezakete hurrengo urtean eman beharreko diru-laguntzak arautzeko programan. | Asimismo, aquellas solicitudes que, siendo susceptibles de subvención, no hayan sido objeto de ayuda por razón de la limitación presupuestaria existente, podrán ser objeto de ayuda dentro del programa regulador de las subvenciones a otorgar el siguiente año. |
| Laguntzak emateko erabakia diktatzeko jarraituko den lehentasun ordena izango da eskaerak eta dagozkion agiriak aurkeztekoa. | El orden de prelación que se seguirá para dictar resolución de la concesión de las ayudas será el de presentación de la solicitud y de los documentos pertinentes. |
| **7. Aurkeztu beharreko agiriak** | **7. Documentación a aportar** |
| Diru-laguntza hauen kontura doazen laguntza eskabideak honela izapidetu behar dira: | Las solicitudes de ayudas con cargo a la presente línea de subvención deberán tramitarse de la forma siguiente: |
| 1. Eskabidea aurkezten den unean agiri hauek erantsi behar dira: | 1. En el momento de la presentación de la solicitud deberá adjuntarse la siguiente documentación: |
| Jarduera eta obra lizentziaren eskabidea, “eraikinetan eguzki energia kaptatu eta baliatzea | Solicitud de licencia de actividad y obra, conforme a los requisitos especificados en la “Ordenanza |

| | |
|---|---|
| arautzeko Udal Ordenantza"n zehaztutako baldintzen arabera. | Municipal reguladora de la captación y aprovechamiento de energía solar en los edificios". |
| Helburu beraz beste entitate batzuei eskatu eta haiek emandako diru-laguntzak deklaratzea. | Declaración de las ayudas económicas solicitadas o concedidas por otras entidades con la misma finalidad. |
| Eguzki energia kaptatzeko sistemak jarri behar diren inmueblearen edo orubearen titularitatearen egiaztagiria. Jabeen komunitateen kasuan, komunitatearen akta, erabakitzen duena eguzki energia kaptatzeko sistema jarriko duela, eta ahalmena ematea eskatzaileari komunitatearen ordez jarduteko Udalean. | Documento que acredite la titularidad del inmueble o solar en el que se van a instalar los sistemas de captación de energía solar. En el caso de comunidades de propietarios, Acta de la Comunidad acordando la instalación del sistema de captación de energía solar, facultando al solicitante para representar a la comunidad ante el Ayuntamiento. |
| Udalean eta Gizarte Segurantzan zerga obligazioak betetzean egunean dagoela egiaztatzen duen agiria. | Documentación que acredite que se hayan al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias frente al Ayuntamiento y a la Seguridad Social. |
| Sinatzailearen NAren kopia. | Copia del DNI del firmante. |
| Instalazio fotoboltaikoen kasuan, lekuaren elektrizitatea banatzen duen enpresaren komunikazioaren kopia eta proiektua egiteko behar diren sareari lotzeko baldintza teknikoak. | En el caso de instalaciones fotovoltaicas, copia de la comunicación por parte de la compañía distribuidora de electricidad del punto y condiciones técnicas de conexión a la red necesarias para la realización del proyecto. |
| 2. Laguntza emateko komunikazioaz geroztik, eta 15 eguneko epean, onuradunak instalatzailearekin batera obra kontratua ekarriko du. | 2. A partir de la comunicación de la concesión de la ayuda, y en el plazo de 15 días, el beneficiario aportará el contrato de obra con el instalador. |
| 3. Obra bukatutakoan, onuradunak udaleko zerbitzu teknikoei adieraziko die, eta hauek erantsiko ditu: | 3. Una vez finalizada la obra, el beneficiario deberá comunicarlo a los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, adjuntando: |
| "Arrasateko udalerrian eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzeko arautzen duen Udal Ordenantza"ren 5. artikuluan eskatutako agiriak. | Documentación requerida en el artículo 5 de la "Ordenanza municipal reguladora de la Instalación de sistemas de captación de energía solar en el municipio de Arrasate" |
| Egindako inbertsioa frogatzen duten fakturen kopia. | Copia de las facturas que justifiquen la inversión realizada. |

| | |
|---|---|
| Instalazioaren mantentze kontratuaren kopia, gutxienez urte bateko aldi batekoa. | Copia del contrato de mantenimiento de la instalación por un periodo mínimo de un año. |
| Eskatutako edo jasotako beste laguntza batzuen deklarazio eguneratua. | Declaración actualizada de otras ayudas solicitadas o recibidas. |
| **8. Emateko prozedura eta laguntzaren ordainketa** | **8. Procedimiento de concesión y abono de la ayuda** |
| Laguntza emango du Udalak, hura ematea erabaki eta gero, Garapen Estrategikoaren Batzordearen proposamenez eta Tokiko Gobernu Batzordearen akordioz, 7.3 artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu ondoren eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek proiektuaren garapena egiaztatu ondoren, dirula-guntza eskabidean eta obra lizentzian ezarritakoaren arabera. | La ayuda se hará efectiva una vez se haya resuelto su concesión, a propuesta de la Comisión de Desarrollo Estratégico y por acuerdo de la Junta de Gobierno, previa presentación de la documentación señalada en el artículo 7.3 y comprobación por los Servicios Técnicos municipales del desarrollo del proyecto conforme a lo establecido en la solicitud de subvención y la licencia de obras. |
| **9. Onuradunen betebeharrak** | **9. Obligaciones de los beneficiarios** |
| Onuradunen betebeharrak dira: | Son obligaciones de los beneficiarios: |
| Diru-laguntza onartzea. Interesdunak berariaz uko egiten ez badio idatziz, 15 eguneko epean, diru-laguntza eman diotela jakinarazten dionetik, ulertuko da onartu egin duela. | Aceptar la subvención. Si el interesado no formula renuncia expresa por escrito en el plazo de 15 días desde la notificación del otorgamiento de la subvención, se entenderá que ésta ha sido aceptada. |
| Obra exekutatzea 6 hileko epean, obra lizentzia eman diotela jakinarazten diotenetik. Epe hori luzatu egin daiteke beste 6 hilabetez bidezko arrazoiez, diru-laguntza emateko organo eskudunari onuradunak eskatu eta gero. | Ejecutar la obra en un plazo de 6 meses a partir de la notificación de la concesión de la Licencia de Obras. Este plazo podrá ser ampliable a otros 6 meses por causas justificadas, previa petición del beneficiario al órgano competente para la concesión de la subvención. |
| Justifikatzea Udalean diru-laguntza emateko ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela. | Justificar ante el Ayuntamiento el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos para la concesión de la subvención. |
| Diru-laguntza hauen onuradunek konpromisoa hartzen dute instalazioa segurtasun, osasungarritasun eta apaindura publikoaren arloko egoeran mantentzeko, bai eta instalazioa gutxienez 5 urtean funtzionatzen mantentzeko ere. | Los beneficiarios de la presente línea de ayudas se comprometen a mantener la instalación en condiciones de seguridad, salubridad y ornato público, así como a mantener la instalación en funcionamiento durante al menos 5 años. |

| **10. Klausula gehigarria** | **10. Cláusula adicional** |
|---|---|
| Arau espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan arau orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |